

TOLOSAKO HERRITARREN BATZARRA

ASAMBLEA CIUDADANA DE TOLOSA

Informazio kit-a



Aurkibidea

0.Sarrera	3
1.Zer da Tolosako Herritarren Batzarra?	4
1.1. Zer da?	4
1.2. Zergatik?	4
1.3. Nork sustatzen du?	5
2. Zer da Herritarren Batzar bat?	7
2.1. Zertan datza eta nola funtzionatzen du?	7
2.2. Nola antolatzen da?	8
3. Galderari buruzko informazio baliagarria eta beharrezkoa: zer jakin behar dugu deliberatzeko eta gomendio kolektiboak egiteko?	9
3.1. Zer da osasun eta ongizate emozionala? Osasun Fisikoa-Mentala-Komunitarioa	9
3.2.Nola - Zer da lankidetzaren publiko-komunitarioa?	14
3.3.Eta Tolosan zertan ari gara?	16
4 Informazio osagarria	17
4.1.Zein da parte hartuko duten herritarrei egiten zaien eskaera?	17
4.2 Saioak non eta noiz izango dira?	17
4.3.Dietak, garraioa eta ordainsariak	18
4.4.Zer jakin behar dut Herritarren Batzarra baino lehen?	18
4.5.Zer gertatuko da deliberazio-saioetan?	19
4.6 Eta zer gertatuko da Herritarren Batzarren ostean?	22
5.Bibliografia	23
6.Eranskinak	24

0. Sarrera


Tolosako udala eta Arantzazulab elkarlanean prozesu berritzailea sustatzen ari dira, xede izanik premiazko erronka konplexu bati lankidetzaz publiko-komunitariotik erantzunak aurkitzea.

Tolosan osasun eta ongizate emozionalarekin lotutako erronkak goranzko joeran daude, eta ez gara gai izaten ari beharrezko irtenbideak aurkitzeko. Horregatik proposatu da Herriarren Batzarra, ausaz aukeratutako 32 tolosarrek gaiari buruz informazioa jaso, deliberatu eta udalari gomendio-kolektiboak aurkeztu diezazkioten. Ondoren, Tolosako Udalak herriarren gomendioei erantzungo die honakoa azalduz: zein gomendio inplementatuko diren eta nola, eta zein gomendio ez diren aurrera eramango eta zergatik.

Zehazki, honako galdera da Herriarren Batzarrean parte hartuko duzuen herritarrek jorratuko duzuen: Zer egin dezake Tolosako Udalak lankidetzaz publiko-komunitarioaren bidetik, guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko?

Tolosako Herriarren Batzarreko kideak ondorengo bost larunbatetan elkartuko zarete: urriaren 22an, azaroaren 5ean, azaroaren 19an, abenduaren 3an eta abenduaren 17an. Lehenengo bi saioetan gaiari buruzko aurkezpenak entzungo dituzue, hurrengo bi saioetan deliberatzeko tarteak izango duzue, eta azken egunean gomendio-kolektiboak aurkeztuko dira.

Ongi etorri Tolosako Herriarren Batzarrera. Aldez aurretik, eskerrik asko egitasmoan parte hartzeko zuen interesagatik.



1. Zer da Tolosako Herritarren Batzarra?

1.1 Zer da?

Covid19 pandemiak agerian utzi du: alde batetik, komunitate kohesionatu eta indartsu bat izatearen garrantzia eta beharra; eta bestetik, zenbat eta lotura zein harreman gehiago izan, pertsonen artean orduan eta osasuntsuagoa dela komunitatea.

Zentzu horretan, tolosarren osasun eta ongizate emozionala udalerrri gisa dugun erronka sozial kolektiboetako bat da; erantzun kolektiboa eskatzen duena, duen dimentsioagatik eta konplexutasunagatik.

Isolamendua, depresioa, antsietatea eta bakardadea bezalako errealitateak eta arazoak, besteak beste, gure inguruko adin guztietako pertsonengan ematen dira, eta nabarmenagoak egin dira oso denbora laburrean.

Gainera, luzaroan, arazo hauen aurrean estereotipoak eta estigmak sortu izan dira, hainbat eremutatik aurre egiten saiatu garenak. Tolosako Udalak hainbat prebentzio-proiektu gauzatu ditu osasun emozional komunitarioa zaintzen laguntzeko. Aldi berean, Tolosako komunitatea osasun-arazoei eta ongizate emozionalari aurre egiteko laguntza-sareak sortzen saiatu da. Baina ekimen horiek guztiak ez dira nahikoak izan.

Estigmak hausteko eta elkarrekin lan egiteko garaia da, gizarte gisa dugun erronka honi erantzun kolektiboak bilatzeko.

1.2 Zergatik?

Parez pare ditugun erronkak konplexuak dira eta horiei irtenbideak aurkitzeko askotariko pertsonen elkarlanean aritu beharko gara. Tolosako gizartean bizi ditugun erronka horien artean ongizate eta osasun emozionala da etengabe goranzko joeran ikusten ari garena; eta ez gara gai izaten ari horri aurre egiteko irtenbideak proposatzen. Horregatik proposatzen dugu herritarrek eta gaian adituek erronka aztertzea eta gomendioak proposatzea.

Tolosako Herritarren Batzarrek aukera emango du:

- **Herritarren gomendio informatuak txertatzea** udal-araudia lantzerakoan
- Herritarrek **ekintza posibleak nola lehenesten** dituzten ulertzea
- Gizarte-ekintzaren **legitimitatea handitzea** aztergai dugun eremuan
- Interes-taldeen **inpaktuak agerian uztea**
- **Blokeo politikoei aurre egitea**
- Gobernantzan, herritarrek parte hartzeko konpromisoa betetzea **ongizate emozionalari aurre egitean.**

Zer egin dezake Tolosako Udalak lankidetzako publiko-komunitarioaren bidetik, guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko?

Nork sustatzen du?

Erakunde komanditarioa

Herritarren batzarra deitzen duen erakundea **Tolosako Udala** da. Herritarren Batzarraren erakunde komanditarioa da eta udaleko pertsona hauek inplikaturik daude:

- Olatz Peon Ormazabal, alkatea (EAJ)
- Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Komunitatea eta Gobernantza zinegotzia (EAJ)
- Angel “Andu” Martinez de Rituerto Arregui, zinegotzia (EHBildu)
- Ander Figuerido Zubiria, zinegotzia (EHBildu)
- Jose M^a Villanueva Telleria, zinegotzia (PSE-EE)
- Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantza teknikaria
- Anjel Alonso, Komunitatea eta Gobernantza teknikaria
- Joana Ezkiaga, Komunikazio arduraduna

Erakunde komanditarioak enkargua egiten du. Horrek esan nahi du Herritarren Batzarra egitasmoa sortzen duela, eta bertan jorratzeko galdera proposatzen duela. Galdera, erakundearen eskumenen esparruan gomendio baliagarriak egiteko diseinatu da. Erakundeak idatziz erantzungo die, une desberdinetan, batzarraren gomendioei (Batzarra amaitu eta bi hilabetera, sei hilabetera eta 18 hilabetera), eta, hala badagokio, horiek inplementatuko ditu.

Eragile sustatzailea



Eragile sustatzailea, gobernantza-eredu berrien inguruan lan egiten duen gizarte-berrikuntza laborategia da, eta gizarte zibiletik Herritarren Batzarra antolatzea bultzatzen du. Eragile betearazlea da, halaber, prozesu osoa koordinatzen du.


Aholkularitza independentea



Lantaldea egitasmoaren diseinu-fase guztietan parte hartzen du, proiektu taldearekin eta inplementazioan izango diren erakundeekin elkarlanean, xedea izanik diseinu-deliberatibo onaren printzipioak betetzea. Inplementazioa maila lokalean eta euskaraz egiten ari garenez, inplementazioa erakunde lokalek egingo dute, eta ELGA taldeak sortzen diren galderak erantzunez laguntza emango du prozesu osoan zehar.


Herritarren Batzarra ezartzeko taldeak

Herritarren Batzarra implementatzeko hainbat batzorde eta lantalde sortu dira.



- **Jarraipen Batzordea:** zeinetan alderdi politikoetako ordezkariak eta deliberazio-prozesuetan nazioarteko adituek parte hartzen dute. Helburua da prozesuan aniztasun ideologikoa bermatzea, baita askotariko ezagutza batzea ere. Herritarren Batzarraren diseinua behatzen dute Tolosako herriaren interes eta beharrekin lotuta dagoela ziurtatzeko.

- **Talde eragilea:** Tolosako udaleko, Arantzazulabeko, Aztikerreko eta Prometeako ordezkariez osatua. Egitasmoa diseinatu eta inplementatzen ari dira.



- **Edukien Batzordea:** non gaian adituek askotariko ezagutza identifikatu eta partekatu duten. Batzorde honek sortu du Herritarren Batzarrean landuko diren edukien markoa.

- **Ebaluazio taldea:** egitasmoa ebaluatuko dute, ikasketak eratortzeko eta landutakoaren inpaktua ulertzeko.

- **Ikuskapen taldea:** taldea aktibatu egingo da behar edo eskaera zehatzak sortu ezker.

2. Zer da Herriarren Batzar bat?

2.1 Zertan datza eta nola funtzionatzen du?


Herriarren Batzarrek, Demokrazia Deliberatiboaren markoari erantzuten diote. Herriarren Batzarra da deliberazio-prozesu ordezkatzailerak inplementatzeko modu bat. Deliberazio-prozesu ordezkatzailerak izeneko prozesuan zera egiten da: herriarren askotariko profilen adierazgarri den pertsona-talde batek informazioa aztertzen du, adostasuna bilatzeko deliberatu eta agintari publikoei zuzendutako gomendio zehatzak garatzen ditu. Prozesu hauek formatu desberdinak dituzte, besteak beste: herriarren batzarrek, epaimahaiak edo panelak.

Deliberazio-prozesu ordezkatzailerak bat ezaugarritzeko, ELGAk (Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak) hiru elementu gako ezarri ditu:

Deliberazioa: informazio zehatza, garrantzitsua eta askotarikoa eskura izatea eskatzen du. Herriarren Batzarreko sustatzaileek informazio hori jartzen dute herriarren eskura eta herriarrak beraiek dira zein informazio behar duten identifikatzen dutenak.


Ordezkatzeko gaitasuna: zozketa bidez aukeratzen da herriarren talde bat, taldea oro har komunitatearen profil demografikoari egokitzen zaiola bermatzeko.

Eragina/ inpaktua: Tolosako Udalak batzarrean parte hartuko duten herriarrek egindako gomendioei erantzutera eta horiei jarraipena emateko konpromisoa hartzen du.




2.2 Nola antolatzen da?

Beheko irudian jasotzen da Herriarren Batzarraren antolaera modu grafikoan:



Tolosako Herriarren Batzarraren egutegi orokorra hau da:




3 Galderari buruzko informazio baliagarria eta beharrezkoa: zer jakin behar dugu deliberatzeko eta gomendio-kolektiboak egiteko?

Hau da Tolosako Herritarren Batzarreko kideek deliberazioan jorratuko duzuen galdera:

Zer egin dezake Tolosako Udalak **lankidetza publiko-komunitarioaren bidetik, guztion **osasuna eta ongizate emozionala** hobetuko duen Tolosa lortzeko?**

3.1 Zer da osasun eta ongizate emozionala? Osasun Fisikoa-Mentala - Komunitarioa

- **Osasuna (Osotasuna):** Munduko Osasun Erakundearen arabera, osasuna ongizate fisiko, mental eta sozialaren arteko konbinazioa da eta ez bakarrik gaixotasunik eza. Pertsona bat osasuntsu (asebeturik) sentituko da hiru esparru horietan ongizatea lortu badu. Esparru bakoitzak besteengan eragina izango du eta, beraz, banaezinak dira.
- **Osasun fisikoa (BIO):** Pertsonaren osasun edo gaixotasun egoera ulertzerakoan, osagai biologikoak, genetikoak eta neurologikoak hartzen ditu aintzat.
- **Osasun mentala (PSIKO):** Ongizatearekin lotu ohi dugu honakoetan lagundu dezakeelako: eguneroko bizitzako estresari aurre egiten, fisikoki osasuntsu egoten, erlazio osasuntsuak izaten, gure komunitatean nabarmen laguntzen, laneko produktibitatea hobetzen, edo bakoitzaren potentzialtasun osoa lortzen.
- **Osasun komunitarioa (SOZIALA):** Norbanakoaren osasunean familiak, gizartearen ideologiak, kulturak eta ingurumenaren ezaugarriek duten eragina hartzen dira kontuan, halaber, osasun-zerbitzuek eta faktore sozial-politiko zein globalen eragina. Osasun hori ahalbidetzeko, esku-hartze komunitarioa jorratzen da.



Iturria: Munduko Osasun Erakundea

ZER DA ONGIZATE EMOZIONALA?



Ongizatea: ongi sentitzen garen egoera da, besteak beste: gure pentsamenduak zainduz, eguneroko plazer txikiez gozatuz, besteekin modu osasuntsuan harremanduz eta ohiko jarduerak motibazioz burutuz.



Ondoez emozionala: gure bizitzako zailtasunei (arazoak, desadostasunak, gaixotasunak, galerrak...) lotutako erantzun emozional iragankor bat da (urduritasuna, kezka edo gogorik eza). Eguneroko zereginetarako kontzentrazioa, energia eta motibazioa murrizten duena.



Emozioak (e-motion): bizitzako egoeren aurrean jardutera bultzatzen gaituen energia da. Emozioa ez da ezerezetik sortzen, zerbait gertatzen zaigularen seinale da. Maiz ekiditen saiatzen gara, esan nahi digutena entzun ordez. Emozio guztiak dira baliagarriak, bakoitzak gure bizitzan zehar helburu bat betetzen duelarik:

- **Beldurra:** geure burua prestatzen du mehatxu edo arrisku baten aurrean, azkar joka dezagun.
- **Haserrea:** geure burua defendatzen laguntzen digu, adibidez, ezetz esaten eta gure eskubideak defendatzen.
- **Tristura:** galera baten aurrean, jarduera gutxizera bultzatzen gaitu, galera hori onartu ahal izateko.
- **Alaitasuna:** ondorengoak eragiten dizkigu: garatzea, lotura sozialak ezartzea, sortzaileak izatea, parte hartzea, aurkitzea, motibatzea eta ahaleginak egitea.



Sentimendua (emozioa + pentsamendua): elkar loturik badaude ere, sentimendua eta emozioa bereizi beharreko kontzeptuak dira. Emozioa laburragoa eta biziagoa izaten da, sentimendua berri, denbora luzean sentitzen dugu, eta batzuetan modu bizian ere.

OSASUNAREN SUSTAPENA, PREBENTZIOA eta AHALDUNTZEA

Zerk eragin dezake osasunean?

- **Faktore biologiko**, genetiko eta neurologikoek.
- **Bizitzako esperientziek**, trauma edo erlazio ez-osasuntsuek.
- Buru osasun arazoak dituzten **aurrekari familiarrek**.
- **Bizitza ohiturek**: elikadurak, ekintza fisikoak edo hainbat substantzien kontsumoak.
- **Testuinguruko aldagaiak**, adibidez: erlazio sozialak, familia, komunitatea, ingurunea...

Osasunaren sustapena

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, **osasunaren sustapena pertsonen osasunaren gaineko kontrola areagotzeko aukera ematen dien prozesua da**. Kontzeptu hori praktikan jartzen da ikuspegi parte-hartzaileak erabiliz; hau da, gizabanakoak, erakundeak, **komunitateak eta erakundeak elkarlanean aritzen dira guztiontzako osasuna eta ongizatea bermatuko duten baldintzak sortzeko**.

Osasunaren sustapenak gizabanakoen gaitasunak indartzeko ekintzak barne hartzen ditu, baita bizi garen testuinguruko baldintzak aldatzeko ekintzak ere, osasun indibidualean eta publikoan duten eragina murrizteko. **Osasuna sustatzeko prozesuak aukera ematen die pertsonen osasunaren determinatzaile sozialak eraginkortasunez kudeatu ahal izateko**. Izaki sozial garen aldetik, ezinbestekoa da guztion artean zaintzea.

Zer dira osasunaren determinatzaile sozialak?

Pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin, zahartu eta erlazionatzeko baldintzak dira, hau da, bizitzan zehar ditugun baldintzak, eta osasunean eragina duten baldintzak. Osasun-sistemaren beraren eragina baino askoz handiagoa da zenbait baldintzatzailek osasunean duten eragina, hala nola bizilekua, hezkuntza-maila, gizarte-harremanak, lan-mota, diru-sarreraren maila, zerbitzu-eraketa sarbidea, ekonomia-, kultura- eta ingurumen-politikak edo merkatu-legeak.

Osasunaren prebentzioa

Prebentzioa, arriskuak identifikatzeko aldeztu aurretik egiten diren ekintza horiek guztiak dira. Xede da **kaltea arintzea edo saihestea; eta behin inpaktu negatiboa dagoenean, ondorioak murriztea**, kostu handiagoak ekiditea, edo, hala badagokio, prebenitu daitezkeen gaixotasunek eragindako heriotzak saihestea.



Osasunerako ahalduntzea

Osasunaren ahalduntze-indibiduala, **gizabanakoek beren bizitza pertsonalari buruzko erabakiak hartzeko eta kontrolatzeko gaitasuna da**.




Komunitatearen osasun-ahalduntzea gizabanakoak era kolektiboan jardutea da. Xedea da pertsonak beraiei komunitateko osasunaren eta bizi-kalitatearen mugatzaileetan eragin eta kontrol handiagoa lortzea.

OSASUN EMOZIONALAREKIN ZEIN MENTALAREKIN ERLAZIONATURIKO DATUAK


COVID-19 krisialdiak osasun emozional eta mentalarekin loturiko arazoak nabarmenki areagotu ditu. Zehazki, pertsonen sufrimendu emozional eta mentala 5 multzo nagusi hauetan sailka genezake, **Tolosako erreferentziazko osasun mentaleko zentroetan 2021ean diagnostiko aktiboak zituzten pertsonak kontuan hartuta:**




Osasun emozional edo mentaleko arazoak dituzten emakumeen ♀ eta gizonen ♂ kopurua




Laguntza profesionala



Mundu mailan



Espainia mailan



3.2 . Nola - Zer da lankidetza publiko-komunitarioa?

Lankidetza publiko-komunitarioaren kontzeptua azaltzeko, “Ekintza komunitarioa” txostena hartu dugu ardatz. Horretan azaltzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa. Gipuzkoako Herriarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioan garatutako markoa da. Txosten horren ideia gako batzuk jaso ditugu behean hitzez hitz.



Ekintza komunitarioa 2022

AURKEZPENAK

Ez gara hutsetik abiatzen; izan ere, Gipuzkoako lurraldeak ibilbide zabala eta ezaguna du ekintza komunitarioaren eremuan, eta gizartearen lankidetzaren gaitasuna eta kapital sozial handia ditu ezaugarri. Nolanahi ere, Etorkizuna Eraikizeko dioen bezala, gizarte kohesioak eta desberdintasunen aurkako borroka gure iparrorratza izan behar dute, globalizazioaren markoan demokrazia liberalaren krisiari erantzuteko asmoz lan egingo badugu. Egitura sozial, instituzional eta profesional berriek dei egiten dute erakundearen eta gizartearen arteko harremanak maila komunitarioan ulertzeko moduak eta estrategiak birpentsatzera.

Lurraldean esku hartzen duen edozein politika publikok erantzukizuna du komunitatea eraikitzean (kultura, kirolak, osasuna, gizarte zerbitzuak, gazteria, partaidetza, baina baita etxebizitza, espazio publikoa, mugikortasuna, berdintasuna, aniztasuna edo garapen ekonomikoa ere). Beraz, erraztu edo zaildu egin dezake loturak, aliantzak, proiektuak edo gizarte antolamendua sortzea. Ikuspegi horretan funtsezko ideiak dira konfiantza erraztu, aitortu edo eraikitzea. Horren ondorioz, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen ekintza publikoa komunitatean oinarritzean, eraginkortasun eta legitimitate politiko arloan irabazten du.



IKUSPEGI KOMUNITARIOA

Nolabait esanda, politika publikoetako ikuspegi komunitarioaz ari garenean herritarren protagonismoa bilatzen duten ekintza/erantzun kolektiboez ari gara, estrategia edo erantzun indibidual edo indibidualizataile hutsen aurrean.

Ikuspegi indibidualizataileak sektore bakoitzari bere eskumena proposatzen dio, eta pertsona bakoitzari bere zerbitzua edo prestazioa. Ikuspegi komunitarioak bilatzen eta sustatzen du jendeak harremanak izan eta loturak eraikitze duen gaitasuna, elkarrekin haien bizitzak hobetzeko baliagarriak diren gauzak egin ditzaten.

Indibidualizazioaren oinarrian dago erantzukizun indibiduala faktore bakar gisa hartzea: norbera gertatzen zaionaren erantzule da eta eskura dituen baliabideekin egoerari aurre egin behar dio. Ekintza komunitarioa, aldiz, honako honetan oinarritzen da: elkarlana, pertsonen arteko kooperazioa eta antolaketa kolektiboa. Hiru elementu horiek ezinbestekoak dira erronka sozial gehienei aurre egiteko, eta, oro har, ezinbesteko baldintza da elkarrekin bizi ahal izateko.

Hala ere, garrantzitsua da hasieratik azpimarratzea, proposatzen dugun ikuspegi komunitarioan, erantzukizun indibiduala ez dela desagertzen edo desitxuratzen. Guztiz kontrakoa; izan ere, helburu dugun gizartea, arlo indibidualean, pertsona autonomo, kontziente zein arduratsuz eta, arlo sozialean, konprometituta daudenez osatua dago. Horrela, zintzoena da onartzea “nik bakarrik ezin dudala”. Ez nik-pertsonak, ez nik-erakundeak: gizarte erronka nagusiek gizartean dute jatorria eta beraz, erantzun sozialak/kolektiboak behar dituzte.

Azkenik, adierazi behar da ikuspegi komunitarioaz ari garenean politika publikoaren hainbat eremutan aplikagarria den zentzuaz ari garela, eta ez politika publikoen sektore edo arlo espezifiko batez. Hala, ez ditugu, adibidez, hezkuntza, osasuna eta ekintza komunitarioa hiru sektore berezitu gisa ikusten. Aldiz, hezkuntza komunitarioa eta osasun komunitarioa ikusten ditugu.

EKINTZA KOMUNITARIOA ZER DEN ETA NOLA ULERTZEN DUGUN

Gizarte erronkei modu kolektiboan heltzen dieten ekimen eta proiektu guztiak jotzen ditugu ekintza komunitario gisa, proposatzen dutena auzoetako eta udalerrietako bizi baldintzak hobetzeko eta gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitze egiten badute, herritarren inplikazioa eta protagonismoa bilatuz eta erraztuz.

EKINTZA KOMUNITARIOAREN LEHENTASUNAK

Erantzukizun publikoa izan behar du herritarren artean elkartasun, lankidetzeta eta koprodukzio harremanak sustatzea, baita horien eta administrazioaren artekoak ere, bi erronka erabakigarriari aurre egiteko: (1) gizartearen eta politikaren indartze demokratikoa, eta (2) gizarte eta ingurumen krisi gero eta hurbilagoari erantzutea.

Lehentasunezkoa izan behar du bizilagunen arteko harreman errepikakor edo jarraia ahalbidetuko duten testuinguruak eta aukerak eraikitzea. Maiz gertatzen den harreman horretatik abiatuta elkar ezagutzen eta errekonozitzen da jendea, mota guztietako loturak ezartzen ditu, eta herritarrek erabakitzen dituzten ekintzak, proiektuak eta jarduerak sortzeko baldintzak ematen dira.

***“nik bakarrik ezin dut”.
Ez nik-pertsonak, ez nik-
erakundeak***

3.3 Eta Tolosan zertan ari gara?

ANTOLAKETA POLITIKOA

Tolosako udalaren ordezkartza politikoa, Tolosako herritarrek aukeratutako talde politiko guztietako zinegotziek osatzen dute; zehazki: alkatea, EAJ/PNV-ko ordezkaria; EAJ/PNV 7 zinegotzi; EH Bildu 8 zinegotzi; eta PSE-EE zinegotzi 1.

Tolosako Herritarren Batzarraren egitasmoa udalean ordezkaturik dauden partidu politiko guztien babestu dute eta konpromisoa hartu dute prozesutik eratorriko diren gomendio-kolektiboei erantzuteko.

SAILAK

Tolosako Udalak herritarrei eta herriari eskaintzen dizkien zerbitzuak hiru arlotan sailkatzen dira: **lurraldea, herritarrak eta antolakuntza**. Horietako bakoitzean hainbat udal zerbitzu eskaintzen ditu, eranskinean kontsulta daitezkeenak. (dokumentu honen azken orrialdeetan)

TOLOSAKO UDALAK ETA TOKIKO ERAGILEEK SUSTATUTAKO EGITASMOAK

Tolosako Udalak eta tokiko eragileek hainbat zerbitzu, proiektu eta programa eskaintzen dizkiete herritarrei. Horietako asko komunitate mailan sortzen dira eta hainbat udal sailek ud parte hartzen dute. Horrela, herritarrei zerbitzu integrala eta zeharkakoa eskaini nahi zaie. Gaur egun abian diren proiektu eta zerbitzuak ezagutzeko, eranskina kontsultatu dezakezu. (dokumentu honen azken orrialdeetan)

4. Informazio osagarria

4.1 Zein da parte hartuko duten herritarrei egiten zaien eskaera?

Parte hartzeak aukera ematen du ongizate eta osasun emozionalaren egoera bertatik bertara ezagutzeko eta Batzarreko gainerako kideekin gaiari buruz deliberatzeko. Zu izango zara protagonistetako bat, aditu talde baten aholkularitzarekin, Tolosan erroka horri aurre egiteko gomendioak landuko dituen. Horretarako, programatutako bileretara joan eta eztabaidan parte hartzeko erantzukizuna duzu.

Herritar bezala duzun ikuspegia helaraztea izango da zure zeregin nagusia, zure egunerokoan ikusi eta bizi duzuna kontuan hartuz. Hiru fasetan egingo dugu lan:



Adituen informazioa jaso



Jasotako informazioaz hausnartu eta deliberatu



Tolosako Udalarentzat proposamen/gomendioak egin eta idatzi.

Eskatzen den konpromisoa da bost larunbatetan antolatutako bilera guztietan parte hartzea, bileratik bilerara ez da aparteko lanik egin beharko.

4.2 Saioak non eta noiz izango dira?



- Urriaren 22an,
- Azaroaren 5ean
- Azaroaren 19an
- Abenduaren 3an
- Abenduaren 17an



Ordutegia: 9:00-18:00

(atsedenaldiak egongo dira).



Tolosako Lanbide Heziketa

Ikastetxean izango dira saio guztiak (Santa Luzia 17).




BU07 Tolosa>Donostia (Herriz herri)

BU08 Tolosa>Donostia (Zuzena)

BU09 Tolosa>Donostiako Ospitaleak

Geltokia: Santa Lutzi Auzoa



Eraikinaren inguruan doako aparkalekua dago.

4.3 Dietak, garraioa eta ordainsariak



Bilera guztietan parte hartzearen ondorioz, **444€ € ko ordainsari** bat jasoko du herritar bakoitzak **prozesuaren amaieran**.



Zure parte hartzeko baldintzak bermatuko dira; **itzulpen/interpretazio zerbitzua** eskainiko da.



Beharrezkoa denean **zaintza-zerbitzua eta garraio laguntza** eskainiko zaizu

Batzarra baino lehen, zurekin jarri gara kontaktuan zure parte-hartze baldintzak bermatuta daudela ziurtatzeko. Dei horretan galdetu dizugu:

- Zure zaintza ardurak, beharrezkoa balitz, zuk saioan zauden bitartean zaintza-zerbitzua kudeatzeko.
- Zure hizkuntza ezagutza, saioak bai euskaraz bai gaztelaraz izango dira. Eta bi hizkuntzetan saioak jarraitu ahal izateko baldintzak bermatuko ditugu.
- Nola etorriko zara saioetara? Premia dutenentzat garraio zerbitzua antolatzen da.
- Janari-eskaera zehatzak, alergiak, intolerantziak... saioetan eskainiko diren catering zerbitzuetan kontuan hartzeko.

4.4 Zer jakin behar dut Herriarren Batzarra baino lehen?



Ez da gaia ezagutu behar, ezta aditua izan behar ere parte hartzeko; izan ere, lehen bi saioetan beharrezko informazio guztia jasoko duzue, ondoren proposamenak egin ditzazuen.



Ez da beharrezkoa modu zehatzean janztea. Etorri eroso sentitzen zaren arroparekin.



Ez duzu jendaurrean hitz egin behar, hala ez baduzu nahi.

Zure ikuspuntua eta bizi-ezagutza entzuna izan dadin eta azken gomendioetan jasota gelditu dadin, talde txikietako dinamikan parte hartzera gonbidatuko zaitugu.



Orain arte egin ez baduzu, **esan iezaguzu zure zaintza, hizkuntza, garraio eta dieta beharrak.**



Saio guztietan parte hartzeko erantzukizuna hartzen duzu, zehazki larunbat hauetan: urriaren 22an, azaroaren 5ean, azaroaren 19an, abenduaren 3an eta abenduaren 17an, 9:00-18:00etako ordutegian (atsedenaldi eta otordu tarteak egongo dira).

4.5 Zer gertatuko da deliberazio-saioetan?

Hau da bost larunbatetako saioetan gertatuko dena:



DELIBERAZIO-SAIOEN EGITARAJA

Lehenengo bi saioetan hainbat aditu eta arituen aldetik informazioa jasoko duzue. Behean jaso ditugu horien izenak, biografia laburrak eta beraien aurkezpenen azalpena.

- Lehenengo egunean, **urriaren 22an, galderarekin lotutako bi gaien ikuspegi orokorra aurkeztuko da**, zehazki, osasun emozionalarena eta lankidetzako publiko-komunitarioarena.
- **Azaroaren 5ean, bigarren egunean, hainbat gaietan sakonduko duzue.** Edukien Batzordeak behean zehaztutako lauak proposatzen ditu: Bakardadea /Zahartzaroa/ Haur eta gazteekin esku-hartzea/ Ikuspegi feminista

Edukien Batzordeak proposatu dituen lau gai horietaz gain, **Herritarren Batzarreko kideek aukera izango duzue zein beste lau gai sakondu nahi dituzuen zehazteko.** Lehen saioan entzundakoaren ostean, zuek adieraziko dituzue zein diren gai berriak eta nor gonbidatuko duzuen horiei buruz informazioa jasotzeko; Herritarren Batzarraren **Proiektu Taldeak** hizlari horiek gonbidatuko ditu **azaroaren 5ean aurkezpena egitera.**

Osasunaren eta ongizate emozionalaren marko orokorra

1

Ainara Aranberri Ruiz

Ainara Aranberri Ruiz EHuko Psikologia Fakultateko irakasle da. Haur eta nerabeen erregulazio emozionalean aditua da.

Hizketa gaia:

Neuropsikologiaren ikuspegitik, norbanakoaren ongizateaz eta osasun emozionalaz arituko da. Adin-talde ezberdinetan kokatuz eta testuinguru ezberdinek (familia, lagunak, eskola/lana, gizartea) izan dezaketen eragina aintzat hartuz. Erregulazio emozionalaren garrantzia azpimarratuko du.

2

Iñaki Izquierdo Amiano

Izan Fundazioan Sustraiak komunitate terapeutikoko zuzendaria da. Talde terapian eta terapia sistemikoan aditua da.

Hizketa gaia:

Ikuspegi sistemikotik, norbanakoaren ongizatean bere inguruko talde edo sistemek duten eraginaz arituko da, batez ere, prozesu terapeutikoetan duten garrantziaz.

Lankidetza publiko-komunitarioaren marko orokorra

3

Eva Salaberria Artano

Donostiako udaleko teknikaria da. Donostia Lagunkoia Hiri Planaren arduraduna da, baita Lurraldeko Ekintza Komunitarioa sustatzeko lantaldearen kidea ere.

Hizketa gaia:

Evak lankidetza publiko-komunitarioaren marko orokorra azalduko du eta lurralde mailan askotariko eragileekin batera garatutako ekintza-komunitarioaren markoa aurkeztuko du.

4

Sorkunde Jaka

Donostia Udaleko Osasun Sustapeneko zerbitzuko teknikaria da eta erizaina da. Askotariko egitasmoak sustatu eta dinamizatu ditu, baita beste hainbatetan aktiboki parte hartu ere; Postalak 2020 eta Erlauntza.

Hizketa gaia:

Lankidetza publiko-komunitarioa osasunaren esparruan praktikan jartzeko hainbat modu partekatuko ditu. Horietako bakoitzean jasotako gakoak, sortu daitezkeen erronkak eta adibide praktikoak aurkeztuko ditu.

HERRITARREN BATZARRAREN EBALUAZIOA

Tolosako Herriarren Batzarra ebaluatu egingo dute Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) ikerlari talde batek. Ebaluazioaren xedea da:

1. Herriarren Batzarraren prozesua aztertzea, zerk funtzionatu duen ondo eta zerk ez duen ondo funtzionatu ulertzeko. Lehen aldia da ikuspegi berritzaile hau Euskal Herrian inplementatzen dela, eta horregatik, egitasmoa sustatzen dugun eragileok ikasi nahi dugu, abian jarriko diren hurrengo **Herriar Batzarretan ikasketa horiek kontuan hartzeko.**

2. Tolosako Herriarren Batzarrak herriarrengan, erakunde sustatzaileengan eta erraztaileengan duen inpaktua ulertzeko. Zein eragin positibo sortu dira? Eta zein dira ikuspegi berritzailearen mugak?

Herriarren Batzarraren kide bezala, **lehen deliberazio-saioan eta azkenekoan inkesta bat betetzea eskatuko dizuegu.** Erraz erantzuteko galdetegiak izango dira, zeintzuk inprimatuta emango dizkizuegun, eta saioan bertan betetzeko astia eta laguntza izango duzue. **Edozein zalantza sortzen bada, bertan izango dira EHUko ikerlariak zuen galderak erantzuteko.**

Inkesta horiez gain, **deliberazio-saioetara gerturako dira ikerlariak. Ez dute deliberazioan parte hartuko, soilik saioetan gertatzen dena behatuko dute;** halaber, hainbat elkarrizketa labur egingo dituzte, eta informazio hori erabiliko dute ebaluazioaren txostena sortzeko. Dokumentu horretan ez dira pertsona zehatzen adierazpenak jasoko, hau da, era anonimoan idatziko da saioetan gertatutakoa. Ebaluaziorako **jasotako informazio eta datu guztiak era anonimoan erabiliko dira,** eta legezko babesa Tolosako Udalak bermatuko du. Ebaluazio-prozesuaren mugarri guztietan, bai Tolosako Herriarren Batzarreko kideek bai antolatzaile guztiek jasoko dute ebaluazioa eta ikerketaren berri.

4.6 Eta zer gertatuko da Herriarren Batzarraren ostean?

Azken saioan, **udal ordezkariak aurkeztuko zaizkie** herriarrek landutako **proposamenak**. Udal arduradunek **ekarpen guztiak baloratuko dituzte eta bideragarritasuna aztertu** eta erantzuteko konpromisoa hartuko dute. Herriarrek egindako gomendioen artean **inplementatuko direnak nola aurrera aterako diren aurkeztuko da, eta inplementatuko ez direnen arrazoiak azalduko** dira.

Abenduaren 17an udal ordezkariak Herriarren Batzarraren saiora gerturatuko dira **herriarren gomendioak** entzuteko. Ondoren, gomendioei erantzun ahal izateko barne-lanketa egingo dute. **Otsailaren hasieran herriarren gomendioak erantzuteko saioa egingo da** udalean. Herriarren Batzarreko kideak izango zaretenak azken saio horretan parte hartzeko gonbidapena bidaliko dizuegu.

5. Bibliografía

Ararteko, Eusko Jaurlaritza (EJ/GV), Osakidetza (2022). La atención a la salud mental en Euskadi. Modelo de abordaje, recursos existentes, necesidades detectadas y coordinación entre sistemas. EHUKo Udako Ikastaroa / Curso de Verano de la UPV/EHU.

Eusko Jaurlaritza (EJ/GV) (2017). Encuesta Nacional de Salud ENSE, Serie informes monográficos, salud mental. Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social. https://www.sanidad.gob.es/estadEstudios/estadisticas/encuestaNacional/encuestaNac2017/SALUD_MENTAL.pdf

Eusko Jaurlaritza (EJ/GV) (2017). Salud mental en datos: prevalencia de los problemas de salud y consumo de psicofármacos y fármacos relacionados a partir de registros clínicos de atención primaria. Subdirección General de Información Sanitaria. https://www.sanidad.gob.es/estadEstudios/estadisticas/estadisticas/estMinisterio/SIAP/Salud_mental_datos.pdf

Eusko Jaurlaritza (EJ/GV) (2022). Estrategia de Salud Mental del Sistema Nacional de Salud Período 2022-2026. Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social https://www.sanidad.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/docs/saludmental/Ministerio_Sanidad_Estrategia_Salud_Mental_SNS_2022_2026.pdf

FEDEAFES (2021). Infancia, adolescencia y juventud con problemas de salud mental en la CAPV. EDE Fundazioa. <https://www.consalmmental.org/publicaciones/Salud-Mental-Infancia-Adolescencia-Juventud-FEDEAFES.pdf>

INE (2021). La salud mental en la pandemia. Lo que dicen las encuestas. Boletín Informativo del Instituto Nacional de Estadística (INE).

Save de Children (2021). Informe crecer saludable(mente). Un análisis sobre la salud mental y el suicidio en la infancia y la adolescencia.

Osakidetza (2022). Osasun Eskola. Osasun mentala. Suizidioa. <https://www.osakidetza.euskadi.eus/osasun-mentala-gaixotasunak/-/osasun-mentala-suizidioa/>

Osakidetza, Eusko Jaurlaritza (EJ/GV) (2016). Guía metodológica para el abordaje de la salud desde una perspectiva comunitaria. Departamento de Salud. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_metodologica_comunitaria/eu_def/adjuntos/guia-metodologia.pdf

6. Eranskina

Eta Tolosan zertan ari gara?

SAILAK

Tolosako Udalak herritarrei eta herriari eskaintzen dizkien zerbitzuak hiru arlotan sailkatzen dira: **lurraldea, herritarrak eta antolakuntza**. Horietako bakoitzean hainbat udal zerbitzu eskaintzen ditu, eranskinean kontsulta daitezkeenak.

Lurraldea

Lurraldearekin zerikusia duten gaiak departamentu bakar batek lantzen ditu: hirigintza, obrak eta zerbitzuak, energia-trantsizioa, mugikortasuna, ingurumena.

Herritarrak

Herritarren arloan honako 8 sail hauek dihardute lanean: gizarte zerbitzuak, berdintasuna, euskara, kultura eta jaiak, haurrak, nerabeak eta gazteak, kirola, komunitatea eta gobernantza.

Garapen ekonomikoa, enpleguaren sustapena, merkataritza, merkatuak eta turismoa

Antolakuntza

Beste zortzi departamentu daude Udalaren zerbitzuen koordinazio eta funtzionamendu egokia bermatzeko: Giza Baliabideak; Idazkaritza; Herritarrentzako Arreta - UDATE; Ogasuna; Informatika; Kontratazioa; Ondarea eta Udaltzaingoa.

Departamentu bakoitzak hainbat dirulaguntza lerro bideratzen ditu:

- Kultur arloko diru-laguntzak
- Gazteriaren arloko diru-laguntzak
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako diru-laguntzak
- Euskara eta Hezkuntza arloko diru-laguntzak
- Tolosako hezkuntza arloko dirulaguntzak
- Kirol arloko diru-laguntzak
- Gizarte zerbitzuen arloko diru-laguntzak
- Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualeko proiektuak egiteko diru-laguntzak
- Gizarte zerbitzuen eta osasunaren elkarrekin mantentzeko diru-laguntzak

TOLOSAKO UDALAK ETA TOKIKO ERAGILEEK SUSTATUTAKO EGITASMOAK

Komunitate mailan sortzen dira askotariko proiektu, programa eta zerbitzuak; horietan, udaleko hainbat departamentuk parte hartzen dute. Horrela, herritarrei zerbitzu integrala eta zeharkakoa eskaini nahi zaie, elkarlanean. Adibidez:

- Osasun Zerbitzua eta mendekotasunen prebentzioa (prebentzio komunitarioko mahaia)
- Haurren hiri
- Osatzen Eskola Irekia
- Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa
- Hezkidetza-mahaia
- Familia Elkargunea eta Bitartekaritza Zerbitzua
- Emakumeen etxea
- Jabekuntza eskola
- Osatzen Eskola Irekia
- Kirol egokitua
- Etxebizitza (tutoretzapekoak; gazteentzako alokairua...)
- Mugikortasun-plana
- Tolosa Mugi
- Errefuxiatuen programa (CEAR – Etxebizitzak eta Zuloaga Txiki) 50 ekimen baino gehiago Tolosko ikastetxeekin
- Adinkide (GFA)
- Gizarte izaerako elkarteei gelak edo eraikinak uztea:
 - Emeterio Arrese (Harizpe, Burubihotzez, Nagusilan, Gaingitzen, Tolosaldeko Arrantzaleak, Colectivo Saharaui, Targazki, AECC, Duintasuna, Boolo Senegal, SOS Racismo, Afagi, Hurkoa, Adinkide, Migración,...)
 - Abastos (Azules, Altzoa, Kokuyo)
 - San Esteban (Ereite)
 - Avenida de Álava (Zutani)
 - Larramendi (Jatorkin y Tolosaldea con el Sahara)
 - Uzturre (Ituriza)

